

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK HARATAGO

bihe - sarean - ehige



Euskal Eskola Publikoak
Gaur Bihar

ehi
gurasoen elkarteak

euskal eskola publikoak

sarean

bihe+

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

Indize:

SARRERA. NOR GARA.

**IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO PROIEKTU ESPEZIFIKOA ETA BE-
REZKO FINANTZAKETA-EREDUA.**

**DATOZEN URTEETARAKO ZENBAIT HEZKUNTZA - ERRONKA GA-
RRANTZITSU EAE-KO IKASTETXE PUBLIKOENTZAT.**

- 1. Eskola mapa.**
- 2. Hezkuntza-proiektua, autonomia eta irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza.**
- 3. Eskolen zuzendaritza.**
- 4. Eskumenen araberako curriculumerako eredu pedagogikoa.**
- 5. Elkarbizitza, eskola-giroa.**
- 6. Hizkuntzak ikasteko esparrua.**
- 7. Teknologia berriak.**
- 8. Parte hartzea: familiak eta ikasleak.**
- 9. Hezkuntza-eremu berriak: eskola-jangelak eta liburutegiak.**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

SARRERA. NOR GARA.

EHIGE - Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte konfederazioak, irakaskuntza publikoko **gurasoen federazioak** biltzen ditu: Bige, Baikara, Denon Eskola, IkasBi eta Eskolak. Euskal Eskola Publikoan ordezkari handiena duen elkartea da; izan ere, EAEko ikastetxeetako ikasleen aiten eta amen elkartearen (**IAAE**) % 90 baino gehiago elkartzen ditu. Kalitatezko euskal eskola publikoaren aldeko lana koordinatzeko beharra defendatzen du, parte-hartzaile guztien borondatea bateratzea eta elkarrenganako errespetua zein askatasuna oinarri hartuta. Eskola publiko euskalduna, progresista, laikoa, berritzailea, autonomia eta demokratikoki kudeatutakoa nahi dugu. Eskola eredu horrek, batetik, familiek hezkuntza-prozesu osoan parte hartuko dutela ziurtatu behar du, eta, bestetik, hezkuntza-komunitatearekin batera erabakitzeko gaitasuna defendatuko du. Halaxe lortuko da irakaskuntza etengabe hobetzea.

BIHE elkartea Bigarren Hezkuntzako ehun institutu publikotan baino gehiagotan **ordezkaritza** duen **zuzendaritzen** elkartea da. Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza publikoa etengabe hobetzen egiten du lan; sare lanaren bidez, elkartutako zentroen interesak ezagutzen ditu eta hezkuntza administrazioaren aurrean guztion intereserako gaietan jarduten du, ikastetxeetako ordezkari gisa.

SAREAN, Euskal Eskola Publikoa **Sarean**, zuzendaritza, koordinazio edo laguntza zerbitzuak ematen dituen hezkuntzako profesionalen elkartea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako 178 eskola publikotan du ordezkari. Elkarrearen helburua irakaskuntza publikoa hobetzea eta defendatzea da. Helburu hori lortzeko, lehentasunezko bi helburu daude: eskolen arteko harremanak hobetzea, eta irakaskuntza publikoaren alorrean administrazioaren eta hezkuntza eragileen arteko harremana bultzatzea.

Jarraian azaldutako proposamenak batera egindako hausnarketa-prozesutik eta dokumentuan parte hartutako erakundeek antolatutako topaketetako ondorioetatik lortu ditugu. Beraz, dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoko hezkuntza-komunitatearen zati handi baten parte-hartzearen ondorioa da.

Bertan zehaztutako helburuak eta ekintzak EAEko irakaskuntza publikoak aurrean dituen erronka nagusien sintesiaren lehen zatia dira eta, ondorioz, euskal hezkuntzaren edozer planen, eztabaidaren eta proiektuen eztabaida-prozesuko erreferentzia garrantzitsu izan behar dute.

Beharrezkoa dugun plan estrategikorako hainbat ekarpen egin ditugu, eta ekarpen horien helburua ikastetxe publikoetan gauzatu behar ditugun hezkuntza-ekintzen ezaugarri garrantzitsuenak zehaztea da, gure ikasleei ahalik eta zerbitzu onena bermatzeko. Dokumentu hori ere Euskal Eskola Publikoa, **Gaur Bihar** ekimenaren barruan

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

dago antolatuta.

IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO PROIEKTU ESPEZIFIKOA ETA BEREZKO FINANTZAKETA-EREDUA.

Eskola publikoen titularrak, Hezkuntza Sailak, EAEko irakaskuntza publikorako proiektu espezifikoa izan behar du. Proiektu horren helburua ikastetxe publikoetatik herrialde bezala aurkezten zaizkigun egungo zein etorkizuneko erronkei erantzutea izan behar da. Hori guztia dela-eta, gure ustez, oinarritzkoa da irakaskuntza publikoa EAEko hezkuntza sistema eraikitzeko ardatza izatea.

Hartu beharreko neurrien artean, nabarmentzekoak dira hurrengo helburu hauek betetze-
ra daramatenak:

Etengabeko hobekuntza.

Eskola publikoak etengabe hobetzeko hezkuntza-politika eskatzen diegu hezkuntza-arduradunei. Alde horretatik, beharrezkoa da administrazioaren eta eskola publikoen arteko etengabeko lankidetzak bideak ezartzea, irakaskuntza publikorako erabakitako hezkuntza-politiken eraginkortasuna diagnostikatzeko eta hobekuntza-neurriak ezartze-
ko.

Finantzaketa nahikotasuna.

Hezkuntza publikoak finantzaketa-eredu espezifikoa izan beharko du, eta nahikoa izan beharko da plan estrategikoan proposatutako benetako erronkei eta eskakizunei erantzuteko. Eskola hitzartuei dagokienez, guztiontzako ekitatean eta aukera-berdintasunean objektiboki laguntzen dutenek jaso ahal izango dute parekatzeko sare publikoaren finantzaketa publikoa.

Eusko Jaurilaritzak hezkuntzarako egungo inbertsio maila hobetu beharko du, gure inguruneko herrialde garatuagoen BPGaren antzeko ehunekoan jarrita.

Ikastetxe bakoitzaren finantzaketa nahikotasuna.

Euskal hezkuntza-sistemaren ardatz nagusi gisa, eskola publikoak ikastetxe guztietarako finantzaketa-maila berbera izan beharko du, egungo egoera hobetzera bideratuta.

Guztion finantzaketa-eredutik abiatuta, plaza-eskakizunak ugaritzea, egoera sozio-ekonomiko txarra duten ikasleak eta abar direla-eta, bestelako beharrak dituzten, borondate berritzailea eta ekintzailea duten eta emaitzak hobetzen dituzten ikastetxeek finantzaketa osagarria izan beharko dute. Aipatutako alderdiak identifikatzen lagunduko duten barne eta kanpo ebaluazio ereduak ezarri beharko ditu administrazioak, ikastetxe bakoitzaren finantzaketa espezifikoa zehazteko.

Deszentralizatutako kudeaketa ekonomikoa.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

Irakaskuntza publikoak administrazioaren eta ikastetxeen erantzukizun partekatuan oinarritutako kudeaketa ekonomikoaren eredia eskatzen du. Alde horretatik, finantzaketa aurreko puntuan aipatu bezala ziurtatu ondoren, ikastetxeek beharrezko eskumenak eta autonomia izango dituzte baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko, dibertsifikatzeko eta euren beharretara egokitzeko. Ikastetxeko kudeaketa ekonomikorako proiektua baliabide horien behar bezala bermatzeko tresna izango da, jarraitu beharreko helburuak eta prozedurak zehaztuko dituen, alegia.

Ikastetxeek autonomia ekonomikoa izan beharko dute, hainbat aspektu ezartzeko; hala nola, euren hornitzaileak, zenbait urtetarako planak, tokiko zein lurraldeko erakundeekin eta fundazioekin adostutako proiektuen finantzaketa-hitzarmenak eta trebakuntza-jarduerak osagarriak...

Deszentralizatutako eredu horren jarraipena eta hobekuntza administrazioaren eta ikastetxeen arteko etengabeko elkarriketan eta negoziaketan oinarritu beharko da. Aurretik aipatutakoari dagokionez, egungo homologatze eredia eta baliabide informatikoen hornidura-sistema berrikusi egin beharko dira, deszentralizazio prozesuan aurrera egiteko.

Ikastetxe berriak sortzea eta lehengoak hobetzea.

Premiazkoa da plaza publikoen eskakizunaren hazkuntzari erantzungo dion ikastetxe publiko berriak eraikitzeke plana zehaztea. Gainera, egungo ikastetxe publikoen berrikuntza eta modernizazio beharrei ahalik eta lasterren helduko dien plana zehaztu beharko da. Era berean, beharrezkoa da administrazioen (Hezkuntza Saila eta EUEDEL) arteko adostasun argiak lortzea, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen mantentze-lanen, segurtasunaren eta langileen inguruan.

Hezkuntza inklusiboa.

Hezkuntza inklusiboa bermatzeko ezinbestekoa da tokiko zein lurraldeko administrazioek, Hezkuntza Sailak eta ikastetxeek koordinatuta lan egitea. Guztia ere, behar espezifikokoak dituzten, berandu sartutako eta baztertze arriskua duten ikasleak baldintza egokietan eskolatzen direla bermatzeko, hau da, beren hezkuntza- zein gizarte-integrazioa ahalbidetuko duten baldintzetan (ghettoak saihestuta, kultura artekotasunean sakonduta, ikasleen gizarte hautaketari mesede egiten dioten ikastetxeak saihestuta...).

Alde horretatik, hezkuntza administrazioak nabarmen hobetu beharko du egungo eskolatzeko eredia, bai eta aipatutako ikasleen jarraipena ere, eskolan diskriminaziorik jasaten ez dutela eta inklusioa lortzeko neurriak hartzen dituztela ziurtatzeko, bereziki, gizarte hausketaren arrisku handiena duten lurraldeetan eta eremuetan.

Erakundeek eta administrazio publikoek koordinatuta lan egiteko beharra nabarmendu nahi dugu, eskola-absentismoa eta eskola-uztea saihesteko eta horien zergatiei eta ondorioei aurre egiteko. Ikasleei euren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea bermatuko dieten beharrezko neurriak hartu behar dira, parte har dezaten eta sozialki integra

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

daitezen.

Hobekuntza horiek gauzatzen diren bitartean, ikasle mota horren kontzentrazio handia duten eskoletan, administrazioak baliabideen egungo hornidura hobetu beharko du, ikasle guztiek aukera berak dituztela bermatzeko. Hezkuntza ikuskaritzak eta aholkularitza pedagogikoko zerbitzuek ikastetxeko zuzendaritzarekin etengabeko harremana izatea funtsezkoa da, arrisku egoera horiek hautemateko eta, ikastetxe horietan, hezkuntza-kalitatearen hobekuntza bermatzeko.

Etengabeko elkarrizketa.

Irakaskuntza publikoko hezkuntza-eragileak ezinbesteko erreferentzia izan behar dute, eskola publikoaren eredu parte-hartzailea eta deszentralizatua sendotzeko. Horretarako, elkarrizketa egonkorra izan beharko dute Hezkuntza Sailarekin, eta horrek euren garapena eta elkarrizketa-gaitasuna bermatzeko besteko baliabide ekonomikoak eman beharko dizkie.

DATOZEN URTEETARAKO ZENBAIT HEZKUNTZA - ERRONKA GARRANTZITSU EAE-KO IKASTETXE PU- BLIKOENTZAT.

Gure ustez, jadanik aipatutakoez gain, EAEko ikastetxe publikoen erronkei heltzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu honako gai hauetan kontzentratzea:

- 1. Eskola mapa.**
- 2. Hezkuntza-proiektua, autonomia eta irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza.**
- 3. Eskolen zuzendaritza.**
- 4. Eskumenen araberrako curriculumerako eredu pedagogikoa.**
- 5. Elkarbizitza, eskola-giroa.**
- 6. Hizkuntzak ikasteko esparrua.**
- 7. Teknologia berriak.**
- 8. Parte hartzea: familiak eta ikasleak.**
- 9. Hezkuntza-eremu berriak: eskola-jangelak eta liburutegiak.**

Jarraian, aurretik zerrendatutako gaien inguruko zenbait printzipio, helburu eta zehazpen garatuko ditugu, eraginkor bihurtzeko, gure Sailari eskatzen diogun beharrezko plan

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

estrategikoa prestatzeko garaian kontuan izateko.

1. Eskola mapa.

Helburuak:

1.1. Eskaintza publikoa berrantolatzea, hain atomizatuta ez dagoen trebakuntza-sare publiko lehiakorragoa egituratzen lagunduko duten ikastetxe eta proiektu integralagoak sortuta.

1.2. Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza osoan, benetako eskakizunari erantzungo dioten eskola-plaza publikoa eremuka bermatzea. Alde horretatik, ikastetxe publiko berriak sortzeko, oso garrantzitsua da ikastetxe integralak nagusitzea hirigintza-hazkuntza handiena duten eremuetan.

1.3. Ikastetxe integralen funtzionamendua, antolakuntza pedagogikoa, baliabide materialak eta langileak erregulatzea (IPI).

1.4. Eskariari aurre egiteko nahikoa plaza publiko dauden eremuetan, ikasgela berririk ez hitzartzea. Irakaskuntza publikoa ez duten eremuen edo etapen ikerketa.

1.5. Haur Eskolak eta LH Irakaskuntza Publikoaren Eskola Maparen barruan eskaintzea.

1.6. Eskola Txikien egoera zehazki aztertzea.

1.7. Behar espezifikoak dituzten, berandu sartu diren eta baztertzeko arriskua duten ikasleen eskolatzea euren hezkuntza - eta gizarte-integrazio osoa ahalbidetuko duten baldintza egokietan gauzatzen dela bermatzea.

1.8. Baliabideen egungo hornidura hobetzea, ikasle guztientzako aukera berdintasuna bermatzeko.

2. Hezkuntza-proiektua, autonomia eta irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza.

Helburuak:

2.1. Ikastetxe publiko guztiek prestatu behar dute hezkuntza proiektu eguneratua,

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

ikastetxean garatu behar dituzten hezkuntza-jarduerak finkatzeko eta hezkuntza- helburuak definitzeko, bai egungoak, bai etorkizunekoak.

2.2. Eskola-antolakuntza eraginkorragoa eta proiektu integralen garapena lagunduko dituen ikastetxe publikoen autonomiarako garapen esparrua prestatzea.

2.3. Ikastetxeen barne funtzionamendua ebaluatzeko ereduak garatzea, maila guztietan: ikasgela, etapa, zentroa.

2.4. Ikastetxe publikoetan, antolakuntzaren zein hezkuntzaren kudeaketa hobetzen lagunduko duten kudeaketa-ereduak ezartzea (KALITATEA HEZKUNTZAN, hobekuntza planak edo bestelakoak).

2.5. Ikastetxe publikoetan, hezkuntza-prozesuen kudeaketan lagunduko duten aplikazio informatikoen esperimentazioa bultzatzea (Irakaslearen Koaderno Digitala edo beste-lakoak).

Oharrak - Zehazpenak:

- Ezinbestekoa da Hezkuntza Sailaren gidaritza, ikastetxe guztietan EHP eztabaidatzeko, prestatzeko eta eguneratzeko. Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu EHPeko eredu-ikastetxeek eredu horiek azaltzea, ikastetxe bakoitzak ondoren berea prestatzen eta egokitzen jakin dezan.

- Administrazioak erraztasunak eman beharko ditu, EHPri ondoen egokitutako hezkuntza-erantzunak ezartzen dituzten ikastetxeen proiektu integralak garatzeko.

- KALITATEA HEZKUNTZAN edo EHPren antolakuntzaren, kudeaketaren eta garapenaren hobekuntza erraztuko duten bestelako kalitatearen kudeaketarako ereduak ikastetxe publikoetan esperimentatzea eta zabaltzea.

- Hezkuntza Sailak Koaderno Digitala eta tankerako aplikazio informatikoak diseinatu eta garatu beharko ditu, irakasleek ikasle bakoitzaren irakaskuntza- ikaskuntza prozesua eta ikasgela eraginkortasun eta gardentasun handiagoarekin kudea dezaten.

- Ikastetxeen autonomia erregulatzeko araudia garatzea, erreferentzia gisa honako aspektu hauek hartuta: azken urteetan garatutako esperientzia pilotuak, Hezkuntza Sailak eta hezkuntza-eragileek garatutako eztabaida- eta hausnarketa-jardunaldien ondorioak eta hortik aurrera garatutako proiektuak. Ikastetxeen autonomiaren jarduera "askatasuna erantzukizunarekin" printzipioaren arabera arautu beharko da, eta helburu nagusia sistemaren kalitatean eta ekitatean laguntzea izango da.

- Eskola batzordeek organo erabakitzaile gisa duten rola aztertuko da.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Administrazioak autonomia-proiektuen garapena erraztu egin beharko du, borondatez hala erabakitzen duten eta ikastetxe publikoetarako autonomia esparruaren aplikazioan lagunduko duten ikastetxeen EHPak garatzen laguntzeko. Alde horretatik, ikastetxeen autonomia poliki-poliki bultzatzeko, lehentasuna emango dio onartutako hezkuntza-proiektua, talde zuzendari egonkorra, zuzendaritza-proiektua eta abar dituzten ikastetxeen eskariei. Autonomia-proiektuen bideragarritasuna bermatzeko, hezkuntza administrazioak ondoren ebaluatuko diren “kontratu-programak” hitzartuko ditu ikastetxeekin.

- Administrazioak hezkuntza-berrikuntza eta kalitatezko proiektuak lantzen dituzten ikastetxeen sarea eta lankidetzak sustatu beharko ditu. Esperientzia berritzaileak partekatzeaz gain, berrikuntza-sareek proiektu horietan pixkanaka sartzen diren ikastetxe berriak tutorizatzeaz arduratuko dira.

- Ikastetxeetan barne ebaluazio prozesuen kultura bultzatzea, ikastetxearen baliabideak etengabe hobetzeko eta modu eraginkorragoan erabiltzeko. Ikastetxeen hezkuntza-prozesuetara moldatutako barne ebaluazio ereduak diseinatzea eta irakasleak zein talde zuzendariak barne ebaluazioko estrategietan trebatzea lehentasunezko helburua izan behar da Hezkuntza Sailarentzat, hurrengo urteetan.

3. Eskolen zuzendaritza.

Helburuak:

- 3.1. Ikastetxe publikoen zuzendaritza profesionalizatzea, gidaritza pedagogikoa eta trebakuntza solidoa dituzten zuzendaritza-eredu egonkorak garatuta.
- 3.2. Talde zuzendarietako pizgarri/aitorpen profesionalen eta ekonomikoen era askotako sistema malgua ezartzea, euren erantzukizun mailaren arabera.
- 3.3. Talde zuzendarien hasierako eta etengabeko trebakuntzako sistema eraginkorra zehaztea eta garatzea.
- 3.4. Ikastetxeen arteko sare lana sustatzea.
- 3.5. Lan baldintzak hobetzea, zuzendaritza-lanetan aritzeko.
- 3.6. Zuzendari elkarteak sustatzea eta aitortzea.

Oharrak - Zehazpenak:

- Gure ustez, ikastetxe publikoek zuzendaritza profesionala sendotu behar dute, betiere,

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

EHP gidatuko duen eta eskola komunitatearen gehiengoaren onarpena duen Zuzendaritza Proiektuaren bidez.

- Zuzendaritza-ereduak ELGAK Eskola gidaritzaren hobekuntza txostenean ezarritako parametroak jarraitu behar ditu. Funtsezko puntuak honako hauek dira: funtzioen eta eskumenen definizioa, hasierako eta etengabeko trebakuntza, zuzendaritza-proiektua, ordainketa eta karrera profesionala. Zuzendaritza profesionala eta “Zuzendarien Taldea” identifikatzea saihestu behar da.

Helburuak:

- 4.1. Irakasleak ikasleen eskumenen araberako garapena eta ikasketa faboratuko dituzten metodologia didaktikoetan eta pedagogikoetan trebatzea.
- 4.2. Irakasleak gaitasun ezberdineko ikasleekin aritzeko prestatzea.
- 4.3. Irakasleak IKTen erabilera didaktikoan trebatzea, ikasleen ikasketa autonomia eta kooperatiboa ahalbidetzeko.
- 4.4. Diagnostiko eta barne ebaluazioak ikaskuntza hobetzeko tresna bihurtzea.
- 4.5. Irakasleek material kurrikular digitalak sortzea eta prestatzea.
- 4.6. Sailen, zikloen eta etapen arteko diziplina arteko lan kooperatiboa sustatzea, curriculumak adierazten dituen eskumen transbertsalen ikasketa bermatzeko.
- 4.7. Ikastetxeen autonomia handitzea, ikaslearen ekimenaren, kultura ekintzailearen eta ikerlanen garapena erraztuko duten proiektuak sustatzeko.
- 4.8. Ikastetxeen arteko lan kooperatiboa sustatzea: lankidetzeta-sareak.
- 4.9. Ikasleak eta familiak PAUen (Boloniako prozesutik ondorioztatutako unibertsitate erreforma) inguruan informatzeko eta gidatzeko prozedura eraginkorra ezartzea.
- 4.10. Gizartearen eta afektibitatearen eremuko eskumenak garatzea, hezkuntza emozionala bultzatuta.
- 4.11. Ikasleen autonomia eta ekimen gaitasuna faboratzea, kultura ekintzailea garatzen duten proiektuen bidez.
- 4.12. Hezkuntza-zerbitzuen aholku funtzioa eta eraginkortasun pedagogikoa sendotzea.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

Oharrak - Zehazpenak:

Curriculuma

- **BIHE, SAREAN** eta **EHIGE** elkarteek Euskal Herrirako curriculuma dokumentua proposatu dute, Euskal Eskola Publikorako erreferentziazko curriculum gisa.
- Hezkuntza Sailak Euskal Eskola Publikoaren funtsezko erreferentzia gisa hartu beharko du Euskal Herrirako curriculuma, Euskal Hezkuntza legearen edo horren garapen arauen etorkizuneko prestakuntza-prozesuan.

Irakasleen trebakuntza:

- Metodologia pedagogikoaren berrikuspena: irakasleak gaitzea ikasleen autoikaskuntza, ikasketa kooperatiboa eta ikasleen diziiplina arteko proiektuen garapena ahalbidetuko dituzten irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan.
- Irakasleen gaitasun digitala hobetzea, IKT heldutasun erdua erreferentzia gisa hartuta.
- Irakasleen baliabide didaktikoak dibertsifikatzea, metodologia didaktiko berritzaileak ahalbidetzeko. Alde horretatik, euskarazko material digital libreen garapena izan beharko da lehentasunetako bat.
- Egungo trebakuntza-ereduaren berrikusketa, hurrengo hauei lehentasuna emanda: ikastaro laburrak, espezifikoak eta kontrastatutako kalitatea dutenak, ikastetxeko trebakuntza eta jardunbide pedagogiko egokien trebakuntza- sarearen garapena (berdinen arteko trebakuntza...).
- Trebakuntzaren eredu deszentralizatuan aurrera egitea: Zentroen euren urteko trebakuntza plana zehazteko beharrezko autonomia izango dute. Administrazioak eta ikastetxeek orpoz orpo egin beharko dute lan ikastetxeko trebakuntza plana prestatzen, beharrezko finantzaketa-baliabideak eta aholkularitza pedagogikoa bermatuta.
- Irakasle berrientzako hasierako trebakuntza: unibertsitateko ikasleak eskumen kognitiboetako, sozialetako eta emozionalen hezkuntza bermatuko dituen irakaskuntza-ikas-kuntza metodologian gaitzea. Irakasle izateko unibertsitateko masterrak aipatutako eskumenak lortzera zuzendu beharko dira. Alde horretatik, EHUK funtsezko gidaritza izan beharko du.
- Plana sinatzen dugun erakundeok lankidetzeta-hitzarmenak ezarri nahi ditugu EHUko errektore taldearekin, ikastetxe publikoetako irakasleen trebakuntza hobetzeko eta ikastetxe publikoen, EHUren edo bestelako arteko harremana ezartzeko.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Ekimen zentzuaren garapena. Proiektuen araberako ikaskuntza.
- IKTek diziplina artekotasuna lantzeko izugarritzko aukera-iturria eskaintzen 9 dute. Alde horretatik, irakaskuntzaren aldaketa metodologikoaren ardatzetako bat Pal (proiektuen araberako ikaskuntza) deitutako ereduari oinarritu behar da, alegia, teknologien erabilera ikas prozesura bideratuta.
- Arazoen araberako ikaskuntzaren oinarria arazo espezifikoak konpontzea da. Nolanahi ere, Pal arazo araberako ikaskuntza baino kategoria zabalagoa da. Proiektuak arazo espezifikoari erantzun nahi dio, eta arazo ez diren beste eremu batzuek ere ardura daiteke. Palren ezaugarri nagusietako bat hau da: proiektuaren oinarria ez da zerbaiti "buruz" ikastea. Zerbait "egitea" da oinarria. Ekintzan oinarritzen da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako eta KOSOMODIESEA, HASI eta HAZI eta Berrikuntza deialdien barnean egindako proiektuen araberako ikaskuntzak barne hartzen dituzten "Gipuzkoa Ekintzailea" ekimenak eta tankerakoak erreferente garrantzitsua dira aurretik aipatutako alderdian, eta Hezkuntza Sailak aztertu eta bultzatu egin beharko lituzke.
- EKITEN IKASI, BIZITZEN IKASI eztabaida-dokumentua izango da oinarritzko dokumentua, ikastetxe publikoetan ekimenaren hezkuntza zuzentzeko.

Barne eta kanpo ebaluazioak.

- Ikastetxeen prozesuen ebaluazioan hobekuntza erraztea, eredu bitartez.
- Diagnostiko ebaluazioen emaitzen erabilera eraginkorra: ikuskaritzaren, berritzeguneen eta hobekuntza plan eraginkorrek diseinatzeko eta garatzeko ikastetxeen arteko lankidetzaren estua. Hezkuntzako administrazioaren laguntza, hobekuntza-planak bideragarri egingo dituzten beharrezko baliabideak erabakitzeke.
- Kanpoko diagnostiko ebaluazioen emaitzen erabilera arduratsua: administrazioak bermatu egin behar du diagnostiko ebaluazioen emaitzen aurreikusitako erabilera errespetatuko dela eta ikastetxearen rankinga saihestuko dela. Alde horretatik, administrazioak "balio erantsiaren" kontzeptua ezarri behar du, ikastetxe bakoitzaren benetako hobekuntzaren parametro gisa.
- Kanpo probak gauzatzeko eta zuzentzeko prozesua: ebaluazio eredu etengabe berrikusi beharko da, egokia dela bermatzeko. Aldi berean, ikastetxeek behar beste denborarekin ezagutu beharko dituzte proben emaitzak, hurrengo ikasturtean garatu beharreko hobekuntza-plana prestatzeko.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Hobekuntza-planek bideragarriak izateko beharrezko neurriak eta baliabideak izango dituzte. Bereziki, baliabide erantsiak izango dira Lehen Hezkuntzako azken zikloan, etapako gutxieneko eskumenak ez lortzeko arriskua dutela frogatzen den ikastetxeetan eta ikasleentzat. Era berean, ikastetxeek autonomia pedagogikoko behar besteko marjina izan beharko dute, hobekuntza- planak ikasleen benetako beharretara egokitze-ko eta, hala, aukera- berdintasuna eta guztiontzako kalitatea bermatzeko. Hobekuntza posible izango da, baldin eta ikastetxeek beharrezko autonomia-maila eta baliabideak badituzte.

5. Elkarbizitza, eskola-giroa.

5.1. Ikastetxe publiko guztietan elkarbizitza plana prestatzea.

5.2. Zentro bakoitzeko AJA prestatzea.

5.3. Ikastetxe bakoitzeko elkarbizitza behatokia sortzea.

5.4. Ikastetxeen arteko lan kooperatiboa bultzatzea, elkarbizitza eta eskola giroa hobetzeko planak aplikatzeko ezagutza hobetzeko.

5.5. Irakasleen trebakuntza hainbat gairen inguruan hobetzea; hala nola, adimen emozionala, gatazken konponketa...

5.6. Gai horiek familiekin eta eskola-komunitate osoarekin lantzea.

5.7. Garapen emozionaleko esperientziak antolatzea, adimen emozionaleko eta elkarbizitzako zentroa.

5.8. Irakasleen trebakuntza hobetzea, erantzukizun zibilaren inguruan.

Oharrak - Zehazpenak:

- Beharrezkoa da ikasleen eskumen sozialak eta afektiboak garatuko dituzten proiektuak aztertzea eta faboratzea, bigarren mailan gelditu ez daitezen eta eskola-giroaren garapen integrala eta hobekuntza lagun dezaten.

- Ikastetxe guztietan, elkarbizitza planak garatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak ezarri behar dira. Alde horretatik, elkarbizitzaren koordinatzailea sortu behar da, gutxienez, elkarbizitza planaren eta AJAren prestakuntzaren prozesuan eta eskola komunitateko sektoreak trebatzen diren bitartean (hiru urte). Hezkuntza Sailak pertsona horrek beharrezko orduak dituela bermatu beharko du, ikastetxe bakoitzaren beharren arabera. Koordinatzaile horiek oinarrizko trebakuntza-plana gainditu beharko dute, eta

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

kasu bakoitzean ezarritako funtzioak beteko dituzte. Besteak beste, elkarbizitza planaren eta AJAren prestakuntza eta horien integrazioa ikastetxeko hezkuntza proiektuan koordinatuko dituzte.

- Ikastetxeko elkarbizitza plana eta AJA izango dira ikasleen jarrera - eta gizarte-eskumenak garatzeko aukera emango duten hezkuntza-ekintzak zuzentzeko eta programatzeko, eta integrazio eta elkarbizitza-arazoei aurre egiteko beharrezko hezkuntza-erantzunak ezartzeko tresnak. Ikastetxeen AJAren aplikazioa elkarbizitza planean aipatutako hezkuntza-printzipioen garapena eta betearazpena lortzera zuzendu beharko da.

- Elkarbizitza Planaren dimentsioetako bat adimen emozionalari eta gatazken konponketari buruzko trebakuntza-proiektuak eta planak garatzea izango da. Alde horretatik, erakundeen arteko hitzarmenak adostu behar dira, irakasleentzako, ikasleentzako, familientzako eta ikastetxeetako bestelako langileentzako zein lankideentzako garatu diren esperientzia positiboak zabaltzeko.

- Euskal Hezkuntza Sistemaren elkarbizitza behatokia arduratuko da programen jarraipenaz, eta jardunbide egokien hedapena bermatuko du. Behatoki horrek orpoz orpo egin beharko du lan ikastetxeetako elkarbizitza-behatokiekin.

Hizkuntzak

Helburuak:

- 6.1. Ikasleen elebitasun eraginkorra bermatzea DBH amaitzen dutenerako.
- 6.2. Politikoki eta sozialki adostea hizkuntzen ikaskuntzari buruzko lege markoa, gaur egungo hizkuntza ereduen sistema gainditzeko duena eta kohesio soziala eta kulturala ahalbidetzen duena.
- 6.3. Etapa eta ziklo bakoitzean eduki beharreko bi hizkuntza ofizialen gutxieneko gaitasun maila zehaztea.
- 6.4. Diagnosi ebaluazioak eta ikerlanak gauzatzea, bi hizkuntza ofizialeko gutxieneko gaitasunak lortzeko zailtasunak dituzten ikastetxeak eta ikasleak identifikatzeko.
- 6.5. Ikastetxe bakoitzean hobekuntza planak bultzatzea, bi hizkuntza ofizialen ikasketa hobetzeko tresna eraginkorrak izan daitezen.
- 6.6. Proiektu pilotu eleanitzak bultzatzea ikastetxeetan, ikastetxeetako hizkuntza proiektuen garapena ahalbidetzeko.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

6.7. Irakasleen gaitasun didaktikoa hobetzea hizkuntzen irakaskuntzan.

6.8. Material didaktiko digitalak sortzea, hizkuntzen ikaskuntzan berrikuntza metodologikoa bultzatze aldera.

6.9. Ikastetxe guztietan hizkuntza proiektua gauzatzeko delako bermatzea eta horren etengabeko ebaluazioa egitea, baita hizkuntzen ikaskuntza integratura bideratzea ere.

6.10. Hiru hizkuntzen curriculum bateratua gauzatzearekin bat datorren erreferentziako eredu pedagogikoa ezartzea.

6.11. Hitzarmenak ezartzea erakundeen artean eta tokiko erakundeekin euskaraz ematen diren eskolaz kanpoko, kultura eta kirol jardueren eskaintza hobetzeko.

Oharrak - Zehazpenak:

Hizkuntzen ikaskuntza integraturako lege markoa

- Bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra eta atzerriko hizkuntzaren ezagutza egokia ahalbidetzen duen lege marko berria adostea politikoki eta sozialki. Lege marko horrek gehiago politiko eta sozialaren adostasuna izan beharko du, Euskadira bizikidetzeta eta kultura proiektua bermatzeko.

- Beste helburu batzuen artean, lege berriak premiaz aldatu behar du gaur egungo A eredu; izan ere, ez du bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzen (hainbat azterlanek frogatu duten bezala) eta ikasleen parte baten bazterketa soziala errazten du.

Erreferentzia mailak

Ikastetxeetako ikaskuntzaren programazioa errazteko eta ikasle guztiek gutxienezko hizkuntza gaitasun maila lortzen dutela bermatzeko, lege marko berriak ebaluazio edo exijentzia mailak ezarri beharko ditu etapen amaierarako; ondoren, legea garatzen sortzen den araudiak erdiko mailak eta epeak ezar ditzan (2008ko EEERen irizpena).

Euskara, lehenetsitako hizkuntza

- Euskararen egoera minorizatua dela eta, ikastetxeek euskara erabili behar dute, lehentasunez, ohiko adierazpenetarako eta irakaskuntza jardueretan.

Koofizialtasuna eta benetako elebitasuna

Euskal Eskola Publikoaren Legearen III. tituluko 18. artikulua arabera, bi hizkuntzen

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

ahozko zein idatzizko ulertze eta adierazte gaitasuna benetakoa izan behar da, ikasleak, gutxienez, ohiko harremanetarako hizkuntza gisa erabili ahal izan ditzan.

«Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak hezkuntzaren alorrean, beraz, ikasleek biak ikasteko eskubidea eta eginbeharra dute, baita biak erabiltzeko eskubidea ere» (2008ko EEEren irizpena).

Errendimendu eta hobekuntza ebaluazioak

- Ikastetxeetan hizkuntzak ikasteko hobekuntza eta indartze planak garatzea, eta arreta berezia jartzea, zenbait ikastetxetan, diagnosi eta barne ebaluazioen arabera, etapa eta ziklo bakoitzerako gutxieneko hizkuntza gaitasunak ez dituztela lortzen hautematen denean. Ildo horretan, ISEIren ebaluazioak, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenak eta ikastetxe bakoitzaren ebaluazioak erreferentzia moduan hartu behar dira beharrezko baliabide orokorrak eta ikastetxe bakoitzak behar dituenak zehazteko.

- Diagnostiko probetan eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2008-2010 aldiko ebaluazio txostenean lortutako datuek erakusten dute ikasleen zati handi batek ez dituela gutxieneko mailak lortu euskarazko hizkuntza gaitasunari dagokionez. Egoera horri aurre egiteko eta gaur egungo gizarte bazterketa arriskuak saihesteko, ikastetxe bakoitzak eta oro har behar diren baliabideak eta hezkuntza estrategiak zehaztu beharko dira.

Ikastetxearen hizkuntza proiektu eredua

- Hezkuntza administrazioak erreferentziazko eredua sortuko du ikastetxe guztiek beren hizkuntza proiektua eratu dezaten, ikasleen tipologiari egokitu eta ikastetxearen testuinguru sozio-linguistikoa aintzat hartuta. Erreferentziazko eredu horren helburua hizkuntzak modu integratuan ikastea ahalbidetzea izango da, eta ikastetxeek beharrezko aholkularitza pedagogikoa izango dute hura zehazteko.

- Ikastetxearen hizkuntza proiektuak bat egin beharko du ikastetxearen hezkuntza proiektuarekin eta curriculum proiektuarekin; izan ere, hezkuntza helburuek berdintasuna eta oinarritzko gaitasunen garapena bermatu beharko dute ikastetxeko ikasle guztientzat.

Ikastetxearen hizkuntza proiektuaren bideragarritasuna

- Hezkuntza Administrazioak egiaztatu beharko du ikastetxe bakoitzaren hizkuntza proiektua bat datorrela hezkuntza eta pedagogia plangintzarako tresnekin (hezkuntza proiektua, curriculum proiektua...), eta inguruko egoera sozio-linguistikoarekin, euskararen kasuan. Bestalde, Hezkuntzako Ikuskaritzak hizkuntza proiektuari egin beharreko zuzenketak proposatuko ditu, benetako elebitasuna bermatzeko, eta atzerriko hizkuntza ikasteko helburuak bete daitezten.

Esperimentazioa eta ebaluazioa

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Hezkuntza Administrazioak ikastetxeetan esperientzia pilotu eleanitzak bultzatuko ditu, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza eta bi hizkuntza ofizialen benetako ikaskuntza ondoen bermatzen duten ikastetxeetako eredu pedagogikoetatik eta esperientzietatik abiatuta. Esperimentazio proiektu horietarako, ikastetxeek behar duten aholkularitza pedagogikoa izango dute bermatua gera dadin hirugarren hizkuntza pixkanaka sartzeak bide emango duela ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen gutxieneko hizkuntza gaitasuna lor dezaten.
- Esperientzia pilotu horiek garatzeko arau markoa malgua izan beharko da hizkuntza bakoitzaren eskola-orduei nahiz aplikazio mailei dagokienez. Horregatik, esperimentazio markoa irekia izan beharko da, eta gero eta zentro gehiagoren parte hartzea bermatu beharko du, baita duela zenbait urtetatik hona hainbat ikastetxek arrakastaz gauzatu dituzten eleaniztasun proiektuen jarraitasuna eta hobekuntza ere.
- Edonola ere, marko esperimentalak tipologia desberdinetako ikastetxe eta indize sozio-ekonomiko eta kultural desberdinetako ikasleen partaidetza bermatu beharko du, azken ebaluazioan eskola sistemaren aniztasuna adierazgarria izan dadin.

7. Teknologia berriak.

Helburuak:

7.1 EUSKAL IRAKASKUNTZA PUBLIKOAREN INGURU BIRTUALA sortzea, Euskal Eskola Publikoko sektore guztien informazio, komunikazio eta parte-hartze prozesuei euskarria emateko eta horiek guztiak barne hartzeko.

7.2 Ikastetxe bakoitzeko **INGURUNE BIRTUAL INTEGRALA** sortzea, bertatik bere administrazio eta hezkuntza jarduerak kudeatu ahal izateko.

7.3 Azpiegituren garapena: sorkuntza plan bat egitea eta garatzea ingurune digital finko eta mugikorreko zentroetan, Euskal Eskola Publikoa Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean sar dadin bermatzeko.

7.4 Hezkuntza eduki digitalak: kode irekia eta doako sarbidea duen eduki digitaleko plataforma sortzea, ikastetxe publikoetako curriculum proiektuei erantzuteko eta indarrean dagoen Oinarrizko Curriculumaren garapena bermatzeko.

7.5 Ikastetxe publikoetako **Teknologia Heldutasun** eredu bat zehaztea, izaera jasangarrikoa, tresna eta aplikazio teknologikoen mailakako ezarpena eta erabilera eraginkorra bultzatuko dituen, eskolako arlo guztietan.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

7.6 Administrazioetik diziplina arteko proiektuen garapena eta ikastetxeetako esperientzia berritzaileak bultzatzea, IKTen hezkuntza erabilera sustatzea eta ikasleen gaitasun digitala garatzen laguntzea.

7.7 Ingurune birtuala sortzea irakasleen trebakuntza eta parte-hartze profesionalerako.

7.8 Software librearen mailakako erabilerari bultzada ematea ikastetxe publikoetan.

Oharrak - Zehazpenak:

Hezkuntza sistemaren ingurune birtuala edo plataforma integrala

- Plataforma integralak ON LINE eskaini beharko ditu, alde batetik, administrazio eta kudeaketako aplikazio guztiak, eta bestetik, ikastetxeek behar dituzten baliabide eta material didaktiko digitalak. Alde horretatik, Hezkuntzako oraingo domeinua berri beharko da, eguneratutako tresnak eta web-orriak inplementatuz.

- Halaber, plataformak beharrezko tresnak izango ditu hezkuntza edo gizarte erakundeek eta ikastetxeek, hezkuntza administrazioak edo beste erakundeek argitaratzen dituzten proposamenei beren ekarpenak egin ahal izan diezazkieten.

Ikastetxe Publikoen Ingurune Birtuala

- Hezkuntzako plataforma birtualaren barruan, ikastetxe publikoek beren ingurune propioa izan behar dute. Ingurune horretan ondoko oinarritzko zerbitzuak eta baliabideak sortu eta eskaini beharko dira:

- Ingurune birtualera sartzeko baimen sistema bereizlea, zuzendaritza-talde, irakasle, ikasle, familia eta jendearentzat oro har.
- Ingurune birtualak ikastetxeei beharrezko aplikazio telematikoak eta tresnak eskaini behar dizkie kudeaketarako: matrikulazioa, eskolako administrazio zuzendaritza, ordutegi sortzailea, notak, faltak, aktak, koaderno digitala, liburutegia, ikastetxeko plan ekonomikoa, ikastetxeetako jantokiak eta garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak eta osagarriak.
- Ikasketarako eduki digitalak eta curriculum materialak gordetzeko tokia, doako sarbidea izango duena aholkulari, irakasle eta ikasleentzat.
- Ingurune integralak atal bat izango du ikastetxe publikoentzat: Ikastetxeetako Intranet/extraneta (web orria, helbide elektronikoak, etab.)

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Hosting zerbitzuak eta ikastetxeko jardueren birtualizazioa garatzen joateko beharrezko tresnak.
- Ikastetxe publikoek gune bat partekatuko dute web orrian, jardunbide egokiak eta hezkuntza esperientzia berritzaileak argitaratzeko. Hezkuntza Sailak baliabide teknikoak eta giza baliabideak bermatu beharko ditu irakasleen arteko lankidetzak bermatzeko eta ikastetxeen arteko esperientziak trukatzeko.

Ikastetxearen IKT proiektua

- Ikastetxeek hezkuntza ekintzak eta metodologia estrategiak zehaztu beharko dituzte IKTak Ikastetxearen Hezkuntza eta Curriculum Proiektuan txertatzeko. Ildo horretan, curriculumeko beharrezko egokitzapenei heldu beharra dago, ikasleen eskumen digitalaren garapena bermatzeko, curriculumeko arlo eta ikasgai guztien ikuspuntutik.
- Ikastetxe publikoek Hezkuntza Saileko hezkuntza zerbitzuen aholkularitza pedagogikoarekin batera, ikastetxeko IKT Proiektua zehaztuko dute. Bertan, ikastetxe bakoitzak ikastetxeko egoera guztietan IKTak garatzea eta erabiltzea bermatuko duten helburu, estrategia, ekintza hezigarriak eta abar zehaztuko ditu.
- IKTen prestaketa prozesuan eskola-erkidegoko sektore guztien parte-hartzea bermatzeko, IKT batzorde bat sortuko da ikastetxean. Bertako kideek proiektuaren proposamena prestatuko dute ondoren eztabaidatzeko, eta hala badagokio, eskola-kontseiluak onartzeko. Behin onartuta, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren zati izango da.

IKT dinamizatzailea

- Ikastetxeetan irakasle dinamizatzaile bat egongo da, ikastetxeko IKT proiektuaren prestaketa eta garapena koordinatzeko. Bere funtzio nagusien artean daude IKT Batzordea koordinatzea, IKTen hezkuntza eta antolakuntza erabileran irakasleen jarrerak eta gaitasunak garatzen laguntzea, IKTen arloan ikastetxearen eta Hezkuntza sailaren arteko harremana kudeatzea, etab.
- Hezkuntza Sailak, ikastetxeen proposamenak kontuan hartuta, IKT dinamizatzailearen funtzioak zehaztu beharko ditu eta beharrezko dedikazio-denbora eta pizgarri profesionalak ziurtatu beharko dizkio, bere funtzioak bete ditzan eta jarraipena izan dezan.
- IKT dinamizatzaileak egiaztatu beharko du behar bezalako prestakuntza duela bete behar dituen funtzioetarako. Ildo horretan, Hezkuntza Sailak Prestakuntza Plan berezi bat antolatu beharko du, IKT dinamizatzaileek nahitaez jarraitu beharko dutena.

Eskola-erkidegoaren IKT prestakuntza

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Ikastetxeak bere IKT Proiektuaren barruan, eskola-erkidegoko sektoreen prestakuntza helburuak zehaztu beharko ditu, ON LINE komunikazioa ahalbidetzeko eta lankidetzak bultzatzeko irakasleen artean eta irakasle eta familien artean, hezkuntza arlo guztietan.
- Hezkuntza Sailak irakasleen oinarrizko IKT ahalmenak zehaztu behar ditu eta beharrezko prestakuntza planak garatu, irakasle guztiek barnera dezaten.
- Unibertsitateak oinarrizko tokia izango du etorkizuneko irakasleen hasierako prestakuntzan. Ildo horretan, beharrezkoa da bermatzea, hezkuntza sisteman sartzen diren tituludunek IKTen erabilerari buruzko ezagutza zabala egiaztatzea, ikaskuntzan erabiltzeko.
- Guraso Elkarteetatik, ikastetxeekin koordinatuta, familien prestakuntza bultzatuko da IKTen aplikazioak eta ikastetxeekiko lankidetzak tresnak erabiltzen ikas dezaten.

Tresneria

- Ikastetxe publikoek, gainerako sektoreen erritmo bertsuan, Informazioaren eta Ezagutzaren gizartera gehitzeko behar dituzten tresneriak bermatu behar ditu Hezkuntza Sailak. Haustura digitala saihesteko duten eta berdintasunaren alde egingo duten hezkuntza politikak eskatzen ditugu.
 - Hezkuntza Sailak software librean garatutako doako aplikazio telematikoak jarriko dizkie ikastetxe publiko guztiei, informazio eta komunikazioa ON LINE egitea bermatu dadin. Ondoko hauek oinarrizkotzat jotzen ditugu:
 - Ikastetxeko Intraneta
 - Ikastetxeko web orria
 - Edukien kudeaketarako aplikazioa: moodle, tokiko multimediako edukiak gordetzeko tokia,...
 - Kudeaketa akademikorako aplikazioa, eskolako administrazio zuzendaritza, koaderno digitala
 - Kudeaketa ekonomikorako aplikazioa
 - Garraio eta jangelarako aplikazioa
 - Liburutegiaren kudeaketarako aplikazioa
- Aplikazio horiek aldika eguneratu egin beharko dira, garapen teknologikoaren alorreko

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

hobekuntzak eta ikastetxeek egiten dituzten ekarpenak txertatuz.

- Hezkuntza Sailak ikastetxeei dagokien azpiegitura teknologikoa emango die benetako ingurune teknologiko bilaka daitezen. Ondoko hauek oinarritzotzat jotzen ditugu:

- Kable bidezko informatika sareak, wifi,... beti ere, pertsonen osasuna babesturik dela. Eraikin bat baino gehiagoko ikastetxeen kasuan, sare bakarra izan dezaten erabil daitezkeen baliabide teknikoak aztertuko dira.

- Nahikoa edukiera duen ikastetxeko zerbitzaria, tokian bertan lan egiteko.

- Banda zabaleko konexioa, ikastetxeko edozein tokitan, bi kanal independenterekin. bat ikasgeletarako eta bestea kudeaketa administratiborako. Garrantzitsua da kontratatutako banda zabaleran bermatuak egotea datuen komunikazio eta transferentzia arina.

- Ikasgela digital malguak, osagai finkoak eta mugikorrek batera egotea bermatzeko.

- Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoei oinarritzko informatika tresneria finkoak eta mugikorrek eman beharko dizkie, ikastetxeak informazioaren eta ezagutzaren gizartean sartzea bermatua egon dadin. Ondoko hauek oinarritzotzat jotzen ditugu:

- Ordenagailu pertsonal bana, ikasle eta irakasle bakoitzarentzat: notebook, ordenagailu txikia, beste bat,...

- Ordenagailuak kargatzeko eta gordetzeko armairuak.

- Ikasgela bakoitzeko arbel digital interaktiboa.

- Orga mugikorrek, oinarritzko elementuak txertatuta dituztela: ordenagailua, proiektagailua.

- Proiektagailu finko bat ikasgela bakoitzeko.

- Inprimatze eta argitalpen tresneria.

- Hezkuntza Sailak tresneriak eta zerbitzuak homologatzeko sistema bat ezarri beharko du, bete behar duten hezkuntza funtziorako kalitate-prezio jasangarria eta egokia dutela bermatzeko.

- Hezkuntza Sailak bermatu beharko du ikastetxe publikoak beren tresneria informatikoa berritzen joatea, industriak garatzen dituen berrikuntza teknologikoak erreferentziatzen hartuta. Ildo horretan, hurrenez hurren abian jartzen diren BERRIZTU planak tresneria informatikoen eguneratze teknologikoaren onurarako erabili beharko dira eta ikasleak

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

bere ahalmen digitala ingurune teknologiko eguneratuan garatzea bermatu beharko dute.

- Ikastetxe publikoek nahikoa autonomia izango dute beren tresneriak, aplikazio informatikoak eta zerbitzuak kontratatzeko, betiere, Sailak inplementatu dizkien oinarritzko tresnak hobetzeko eta osatzeko xedez. Nahitaez homologatuta egon beharko dute kontratatzen diren hornikuntza horiek guztiak.

IKT heldutasun eredia

- Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoetako IKTen garapen eredu jasagarria, mailakatua eta ikastetxe bakoitzeko hezkuntza proiektua garatzearen alde egingo duena zehaztu beharko du. Ildo horretan, ereduak erreferentzia egin beharko die ikastetxeko alderdi guztiei (pedagogikoak, antolakuntzakoak, informazio eta komunikazioari dagozkienak, kudeaketakoak,...).

- Heldutasun ereduak, besteak beste, argi eta garbi arautu beharko ditu honako hauek: lor daitezkeen heldutasun mailak, ikastetxe batek bere heldutasun maila egiaztatzeko bete beharreko baldintzak eta ikastetxeak etengabe hobetzeko izango dituzten erakundeen babesak.

- Ikastetxe baten IKTen heldutasun mailaren ebaluazio eredia, ikastetxeen etengabeko hobekuntzarekin lotuta egongo da eta ez bere sailkapenarekin. Ildo horretan, ebaluaziorako diseinatzen diren tresna eta prozedurek, hobetu beharreko alderdiek identifikatzen lagundu beharko dute eta hobetzen lagunduko duten orientabide zehatzak proposatuko dituzte. IKTen erabileran hobetzeko jarraibide horiek, ikastetxeko IKTen hobekuntza proiektuaren urteko planean sartuko dira.

- Ikastetxe publikoek, nahitaez, urteko IKT hobekuntza plana garatu eta zehaztu beharko dute, eta horretarako, beharrezko giza baliabide eta materialak izango dituzte.

- Hezkuntza Sailak IKT heldutasun ereduaren ikuskaritza eta ebaluazioa burutuko duen erakunde administratiboa zehaztuko du. Ereduak xede dituen jasangarritasuna eta hezkuntza helburuak bermatze aldera, ez dugu inola ere uste kanpoko enpresa baten beharra dagoenik ikuskapen funtzioa betetzeko.

- Ikastetxeen IKTen heldutasunaren jarraipen eta ebaluazio prozesua ikastetxeen arteko berdintasuna bermatzen saiatuko da. Ildo horretan, Hezkuntza Sailak ikastetxe publiko guztiek aurrera egin dezaten beharrezkoak diren laguntza neurriak eta babesak zehaztu beharko ditu.

- Hezkuntza Sailak pizgarri sistema bat ezarriko du (materiala eta giza baliabideak), IKTak erabiliz hezkuntza berrikuntza sustatzeko. Horretarako, auto-ikaskuntzan eta elkarlaneko ikaskuntzan sakonduko duten hezkuntza proiektuak garatuko ditu.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- Hezkuntza Sailak, bere ICTen heldutasun ereduaren barruan, ikastetxe publikoetan software librearen erabilera bultzatuko du, era honetako ezarpenetan oinarria duten hezkuntza proiektu berritzaileak bultzatuz.

ICTen heldutasun ereduaren hezkuntza helburuak

- Ikastetxeetako ICTen heldutasun eredia indarrean dagoen curriculum zehazten duten hezkuntza helburuetan txertatu beharko da. Horren haritik, ereduaren abantailak justifikatzeko, ikastetxearen ICTen heldutasunaren ekarpen positiboek ikasleen gaitasunen garapenean dituzten onurak azaldu beharko dira.

- ICTen heldutasun ereduak lagunduko du, ICTen erabileran irakasleek dituzten prestakuntza gabeziak identifikatzen eta behar horiei laguntzeko ekintza instituzionalak eratzten. Hezkuntza Sailak beharrezko mekanismoak ezarri beharko ditu ikastetxe bakoitzeko prestakuntza premiei erantzuteko. Hala, Berritzeguneetako aholkulari pedagogikoen parte-hartzea eta egokitzeko gaitasuna funtsezkoak izango dira ikastetxe bakoitzeko erritmoari eta prestakuntza beharrezkoak erantzuteko.

8. Parte hartzea: familiak eta ikasleak.

Parte-hartzea funtsezko ardatza iruditzen zaigu Euskal Eskola Publikoa hobetzeko. Euskal Eskola Publikoaren Legeak hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea bermatzen du, baina ikastetxeek eta komunitateko kideek beraiek baliatu behar dituzten beren eskubideak eta betebeharrak.

FAMILIAK, ERAGILE NAGUSIAK ETA BEHARREZKO KOLABORATZAILEAK.

Helburuak:

8.1. Familiei euren seme-alaben hezkuntza-lanetan laguntzea, hezkuntzaren eragile nagusi eta arduradun gisa.

8.2. Familien eta eskolen arteko konfiantza bultzatzea, komunikazioaren, elkarren arteko erabakien eta inplikazioaren bitartez.

8.3. Ikastetxeetan familien parte-hartzea eta bien hezkuntza-lankidetzaren sendotzea, hezkuntza- eta eskola-arrakastarako beharrezko faktore gisa. Ikastetxearen eta familien arteko konpromisoak sinatzea, batera eta era pertsonalizatuan lan egiteko, ikasleen eskola-integrazioaren eta ikaskuntzaren hobekuntzan.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

8.4. Familien baterako ekintza indartzea ikastetxe bakoitzean, lurralde bakoitzean eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

8.5. Familiak trebatzeko prozesuak planifikatzea eta martxan jartzea seme-alaben hezkuntzaren inguruan, bai eta aholkularitzako eta gizarte zein ekonomia-laguntzako prozesuak ere, euren hezkuntza-erantzukizuna gauzatzeko zailtasunak dituzten familientzat.

8.6. Familien eskolako eskubideen eta betebeharren definizioa, bai eta familien eta eskolen arteko adostasuna ere, familiek euren eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko. Familiei horiek jakinaraztea, betiere, berandu sartutako familiei dagokion unean jakinarazita.

8.7. Lana, eskola eta familia bizitza uztartzea, familietako hezkuntza jardunbideak eta familiak zein ikastetxeak koordinatzeko baldintzak faboratzeko.

8.8. Ikastetxeek ahal beste ordu irekita izateko erraztasunak emango dira, ikastetxeko jarduerak eta ikastetzez kanpokoak erabat desberdinu gabe; hala, ikasleei, familien arteko harremanei eta ikastetxearen bizitzari lagunduko dien baliabideak, erlazioak eta koordinazioa emango zaizkie ikasleei, familiei eta komunitateari.

8.9. AAEak errekonozitzea ikastetxeetako familien ordezkapen organo gisa, eta kontsul-ta, negoziazio eta erabakiak hartzeko organo izateko eskubidea ematea hezkuntza administrazioaren zin ikastetxeen ekintzen inguruan (ikastetxe guztiei eragiten dietenak eta ikastetxe publikoei bakarrik eragiten dietenak ondo bereizita).

8.10. Seme-alaben tutoreekin eta irakasleekin elkartzeko eta, soldatan eragin gabe, familiei lanetik irteteko eskubidea aitortuko dieten hitzarmen kolektiboak proposatzea (seme- alaben gaixotasunagatik sendagilearengana joateko eskubidearen antzera). Ikastetxeko, udalerriko, autonomia erkidegoko eskola batzordeko kide diren gurasoek funtzio publikoa dutela aitortzea, eta hortik erkidegotutako erakunde horien saioetara joan ahal izateko baimen ordaindua ematea.

IKASLEAK.

Helburuak:

8.1. Ikaslea hezkuntzaren subjektua/helburua da; hezkuntza-eginbehar guztia bere garapen integralera zuzendu behar da.

8.2. Ikasle guztiek egungo zein etorkizuneko gizartearen erronkei aurre egitea ahalbidetuko dien kalitatezko irakaskuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.

8.3. Ikasle bakoitzak bere gaitasun gehienak garatzeko aukera emango dion banakako

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

irakaskuntza jasoko du, guztiontzako bikaintasuna bilatzen duen hezkuntza- sistemaren bidez.

8.4. Derrigorrezko irakaskuntza osoan, ikasle guztien eskola arrakasta lortuko duen eta horien gehiengoarentzako ikasketen jarraipena bilatuko duen hezkuntza ahalbidetuko da.

8.5. Ikasleei gizarte modernoa osatzen duten eta aktiboki parte hartzen duten herritar rola onartzeko behar besteko trebakuntza ematea.

8.6. Tokiak eta denborak zehaztuko dira ikasleek gatazkak elkarrizketaren eta elkarbizitzaren bidez konpontzeko.

8.7. Ikasleen parte-hartzea bultzatuko da hezkuntza-etapa guztietan.

9. Hezkuntza-eremu berriak:

Eskolak familien behar berriei erantzuten die. Familiek seme-alabak zaintzeko eta familia, lana eta eskola uztartzeko zerbitzu eta eremu berriak eskatzen dituzte. Zerbitzu eta eremu horiek ez dute laguntzazkoak soilik izan behar, baita hezitzaileak ere. Gure seme- alabenganako edozer ekintza edo ez ekintza hezteko modua da. Horregatik, koordinazioa eta inplikazioa ezinbestekoak dira eremu horietan eta eskolan.

IKASTETXEKO ZERBITZUAK

Ikasleei ikastetxez kanpoko langileek ematen dizkieten zerbitzuak dira eta, gizartearen eta familia-taldean funtzionamendua izandako aldaketek eragindako gizarte behar berriei erantzuteko, eskolak antolatu beharreko eskola-jarduera osatzen dute.

Zerbitzu horien artean, honako hauek daude:

- jangela
- garraioa
- harrera edo zaintza zerbitzua
- eskola indartzeko jarduerak
- ikastetxea eskolakoak ez diren egunetan irekitzea

Lan eta eskola-ordutegien bateraezintasunak, familiaren barneko lanen aldaketan eta esleipenean aldaketak eragin dituzten familia-egituren eta sistemen transformazioak, lan mugikortasunak eta familia handien desagerpenak familien laguntza-sareen ahultzea eragin dute, familiak bere arduraren dituen betebeharrak eta zaintza-lanen banaketan.

Helburuak:

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

- **Hezkuntzaren ikuspuntutik** trebakuntza integrala eskaintzea eta ikasleei (bereziki zailtasun handienak dituztenei) eskolatzeko erraztasunak ematea.

- **Lana eta familia uztartzeari dagokionez** bien arteko oreka topatzea, laneko eta eskolako ordutegien artean bateraezintasuna gertatzen baita.

IKASTETXEKO JANGELAK.

Helburuak:

- 9.1. Eremu horrek behar duen hezkuntza-balorea kontuan izatea eta ematea.
- 9.2. Jangela ikastetxearen planean sartzea, eta elkarbizitza-planari bereziki lotzea.
- 9.3. Egungo jangela-araudia eguneratzea eta edukia aldatzea, kudeaketa-alderdi guztiak berrikusita.
- 9.4. Elikadura-kontuak berrikustea.
- 9.5. Iraunkortasunari eta inguruneari lotutako elikadura-kalitatea lortzea.
- 9.6. Jangelak ikasleen adinaren arabera antolatzea eta antolaketa horretan ikasleen parte- hartzea eta ardurak kontuan izatea.
- 9.7. Jangelako langileen baldintzak eta trebakuntza eguneratzea.
- 9.8. Jangela batzordea sortzea, Hezkuntza Saileko, **Ehigeko**, **Biheko** eta **Sarean**-eko arduradunen eta gai horretan adituak direnen iritzia kontuan hartuta, egungo egoeraren alternatiba prestatzeko.
- 9.9. Sailekoa ez den kanpoko erakundeak ikastetxeetako egungo jangelen baldintzen ikerketa egitea.
- 9.10. Kanpoko kudeaketa duten jangelen egungo esperientzia ikertzea.

ESKOLA KANPOKO JARDUERAK

Eskola kanpoko jarduerak ez dira haurren gozamenerako eta euren zaintzaren inguruko familia-beharrak konpentsatzeko baliabideen ekarpen soil gisa ulertu behar.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO

Hezkuntza ez formalaren esparruan eremuak sortzea da, eta, jarduera ludikoen bitartez, elkarbizitzara zuzendutako gizarte gaitasunak landu nahi ditu ikasleekin.

Hezkuntza ez formalaren eta eskolatik kanpoko hezkuntzaren eremua esparru ezin hobea eta pribilegiatua da balioak kontuan hartuta hezteko; izan ere, eskolako curriculu-maren mendean ez dagoenez, jarreraren eta baloreen garapenean kontzentra daiteke, autonomia eta gozamina abiapuntu hartuta.

Hori eremu pribilegiatua da, ikasleek espiritu solidarioarekin jarduten ikasteko, pertsonen arteko harremanetan sortzen zaizkien arazoaren eta egoeren aurrean.

Helburuak ikastetxeetan honako aspektu hauetan lagunduko duten hezkuntza ez formaleko baliabideak sustatzea da:

- ikasle guztiei aisialdiko baliabideak eskaintzea, hainbat esparrutan;
- hezkuntza-komunitateko partaidetza-sentimendu positiboa sustatzea;
- autonomiaren eta erantzukizunaren garapena sustatzea, eskola kanpoko jardueren garapenean;
- autoestimua garatzea eta sendotzea;
- ikasleen arteko harremanak esparru ez formaletik hobetzea eta sendotzea;
- gizarte eta komunikazio gaitasunen lorpena sustatzea eta erraztea;
- sentsibiltatea, sormena eta solidaritatea faboratzea;
- desberdintasunak konpentsatzea.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK HARATAGO

bihe - sarean - ehige



Euskal Eskola Publikoak
Gaur Bihar

